

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 4/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, apirilaren 21ekoa. Onestea premiazko neurriak hauen gaineko zergetan, COVID-19ren eragin ekonomikoari aurre egiteko: balio erantsia, zerga bereziak eta ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuak**

Euskal Autonomia Erkidegoarekin egindako Ekonomia Itunak (maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutakoak) 26. eta 33. artikuluetan xedatzen duenaren arabera, balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak zerga itunduak dira, eta Estatuak une bakoitzean xedatzen dituen arau funtsezko eta formalen bidez arautzen dira, berariazko gai batzuk izan ezik.

Estatuak martxoaren 31ko 11/2020 Legegintzako Errege Dekretua onetsi du berriki eta, haren bidez, premiazko neurri osagarriak hartu ditu gizarte eta ekonomia alorrean COVID-19 gaixotasunari aurre egiteko.

Dekretu horretan mekanismo bat ezartzen da elektrizitatearen, gas naturalaren edo petroliotik eratorritako produktu jakinen fakturen ordainketak geldiarazteko eskatu ahal izan diezaion kontratuaren titularrak elektrizitate eta gas merkaturatzaileari edota gas manufakturatuen edo petrolio gas likidotu (PGL) kanalizatuaren banatzaileari. Bestalde, merkaturatzaileek ez dezaten beren gain hartu diruzaintzako bidegabeko kargarik, ez dute bidesaririk edota kontsumo horiei ezartzen zaien zeharkako zergarik ordaindu beharko ordainketak geldiarazita dauden bitartean.

Horretarako, Arabako Lurralde Historikoko zerga arautegian txertatu behar dira aipatutako legegintzako dekretuak zeharkako zergetan egindako aldaketak.

Bestalde, COVID-19 gaixotasunaren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko neurriak onetsi zituen martxoaren 17ko 8/2020 Legegintzako Errege Dekretuak hipoteka zorraren luzamendua ezarri zuen, hasiera batean, pertsona fisikoen ohiko etxebizitzarako, eta ondoren, baita autonomoek, enpresaburuek eta profesionalak beren jarduera ekonomikoa gauzatzeko erabiltzen dituzten higiezinatarako ere, bai eta higiezinak alokatuta dituzten pertsona fisikoentzat ere, baldin eta ez badute alokairu errentarik jasotzen alarma egoera dela eta errentarien alde ezarritako neurrien ondorioz.

Neurri hori osatzeko, komenigarria da ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga aldatzea, Estatuak egin duen bezala, eta egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario agiriaren gaineko kuota gradualetik salbuestea hipoteka maileguak eta kredituak berritzeko egiten diren eskriturak, baldin eta COVID-19 gaixotasunaren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko neurriak onetsi zituen martxoaren 17ko 8/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren babesean egiten badira.

Aldaketa hori premiazkoa da, aipatutako kolektiboek eragin negatiborik jasan ez dezaten.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 8. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hau

## XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Elektrizitatearen, gas naturalaren eta petroliotik eratorritako produktuen fakturen ordainketak geldiaraztea.

Elektrizitate eta gas merkaturatzaileek eta gas manufakturatua edo petrolio gas likidotuak kanalizazio bidez banatzen dituzten enpresek ez dute elektrizitatearen zerga bereziaren edota hidrokARBuroen zerga bereziaren BEZa likidatu beharko, COVID-19 gaixotasunaren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko neurri osagarriak onetsi zituen martxoaren 31ko 11/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 44.1 artikuluan xedatutakoa dela eta ordainketa geldiarazita duten fakturen kasuan. Kontsumitzaileak faktura osorik ordaintzen duenean ordaindu beharko dute faktura horien BEZa edo, bestela, alarma egoera amaitzen denetik sei hilabeteko epean.

Bigarrena. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga aldatzea.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren 69. artikulua (Bat ataleko B) letrari 49. zenbakia erantsi zaio, zeina honela geratu baita idatzita:

“49. COVID-19 gaixotasunaren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko neurriak onetsi zituen martxoaren 17ko 8/2020 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoaren babespean hipoteka maileguak eta kredituak berritzeko egiten diren eskriturak salbuetsita egongo dira zerga honen egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario agirien gaineko kuota gradualetik”

## AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta honako egun hauetatik aurrera izango ditu ondorioak:

- a- Lehenengo xedapenak, 2020ko apirilaren 2tik aurrera, eta
- b- bigarren xedapenak, 2020ko martxoaren 18tik aurrera.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaie zerga premiazko araugintzako dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Batzar Nagusiei jakinaraziko zaie, indarreko araudiaren arabera izapidetu dadin.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 21a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*

**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**